

Erasoen beldur

Antton Izagirre

Harrigarria da han eta hemen izaten diren gertakariak nola aldatzen duten herritarren begirada. Orain urte batzuk herri eta hirietako festak aurkezten zizkigutenean begirada osoa festaren alde ludikoan jartzen genuen. Festak libertimenduaren eta gozamenaren sinbologiaz beterik aurkezten zizkiguten.

Azkenaldi honetan ikusten ari gara festen iragarpenei erantsi zaien beldurraren karga. Ikusi besterik ez, Baionako festen aurkezpenean aditzera eman diren neurri murriztaileak, segurtasunaren izenean jarriko diren mugak eta festari ezarriko zaizkion kontrolak: poliziak, jendarmeak militarrek, suhiltzaileak... ahalmen bereziak izango dituzte eta herritarrok gizarte

poliziala ez dugu zalantzan jarriko. Errepresioaren izaera izan duten indar polizialak askatasunaren sinbolo bilakatuko dira. Esango digute polizia-zaindari gehiago izatean askeago sentitzen garela herritarrok. Horratx, oroikusle den hirugarren begia, gauetik egunera gure anaia nagusia bihurturik.

Jakin berri dugu baita ere, Iruñean emakumeen aurkako eraso sexistak izan diren antzera, beste hainbat festagunetan ere halakoak gertatu direla: Getxo, Barakaldo, Errenteria, Lezo. Eta eraso horien harira hainbat herritan eraso sexisten aurkako protokoloak diseinatzen ari direla. Gertatutakoa berria ez den arren, erakusten digu zerbait larria dela gure gizartean gertatzen ari dena. Iruñeko alkateak

zioen moduan, onartezina da herritarren erdiek erasoen mehatxupearan irten behar izatea kalera.

Espero dezagun irtenbide bakarra poliziala ez izatea. Gizartearen gehiengo batek ondo ulertu du festaguneak guneez askatasun, duintasun eta askatasunaren jabe izan behar duela eta hori hala izan dadin guztion parte hartzea eta konpromisoa behar-beharrezkoak direla.

Arma eta lehergailuak ikuska lezake poliziak baina bakar batzuen intolerantzia, sexismoa eta emakumeen aurkako grina txarrak arma ezkutuak izaten dira eta heziketa, gizarte eragina, salaketa eta erantzuna dira horien aurkako neurri indartsuenak. •

Mea culpa

Andoni Egia

Egia esan ez dakit egun lehen baino eraso sexista eta sexual gehiago ala gutxiago dagoen, edo lehen hainbeste salatzen ez zirenez, konturatzen ez ginen. Edonola ere uda honetan (eta aurrekoan, eta aurrekoan...) gertatzen ari dena jasangaitza da. Sanferminetan hasi eta hitz hauek idaztean Lezoi jarraitu du amaituko ez den kontaktuzunak.

Erasoak sentiarazten duten nazka eta atsekabetik, nolabaiteko ezinegonera pasatu naiz, eta hortik erantzukizuna lehenengo pertsonan sentitzera. Nazkak eta atsekabeak ez dute esplikazio gehiegirik behar. Ezinegonak, ordea, erasoengururua eman diren zenbait azpiko arrazo-

namenduk sortua izan da. Nago, sanferminen lehenengo gauean gertatu zen eraso horren atzean Sevillako bost gazte egon izanak, eta are gehiago, horietatik bi guardia zibil eta militar izateak, nolabaiteko lasaitu orokortua eragin duela, nolabaiteko «ikusten, hauek kanpotarren gauzak dira, are gehiago, guardia zibil eta militarren gauzak dira, GUK ez dugu halakorik egiten, gu euskaldunak, jatorrak, ezkertiarrek eta feministak baikara». Bagozen adierazi nahiko nuke, ni ere eraso horien atzean nagoela. Nire parte hartze aktiborik gabe, horrelakoak ezingo liratekeela gertatu. Eraso hura ez zen bost horien artean bakarrik egin. Eraso horren atzean, euskarri bezala, andamiaje teori-

ko-praktiko oso bat dago, neronek eguneroko sortzen dudana, eta bere ondorioak egunero izaten dira. Onuragarriak niretzako, kaltegarriak nire inguruko emakume guztientzako: Patriarkatua du izena eta gizon guztiak ditu protagonista. Zenbatetan izango ote nintzen ni akosatzaile? Zenbatetan begiratu ote dut beste alde batera komentario matxista eta iraingarrien aurrean? Mutil, gizon, utz dezagun Martxoak 8an gizon feminista izateari, edo erasoengururua ozenen oihukatzeari, eta has gaitezen eguneroko mikromatxismoak sortzen den makromatxismoa deseraikitzen. Bidean, ezinbestean, zure eta nire pribilegioak alde batera utziz. •